

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OKONDOKO UDALA

#### Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2016ko ordainagiriak kobratzea

Jarduera ekonomikoen gaineko zergari buruzko Okondoko 2016ko matrikula jendaurrean jarri ondoren erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, onartu egin du foru aldundiak.

Bi hilabete izango dira ordaintzeko; hau da, 2016ko abenduaren 1etik 2017ko urtarrilaren 31ra bitartean.

Borondatezko aldian ordaintzeko epea amaiturik, ordaindu ez diren kuotetarako, betearazteko aldia hasiko da berez eta besterik gabe. Horrek berekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien erreklarguak eskatzea, 6/2005 Foru Arau Orokorrak, zergenak, 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bai eta premiamendu prozeduraren kostuak ere, bidezko denean.

Bankuetan helbideratutako ordainketetarako, zergadunek ez dute inolako izapiderik egin behar, bankuak 2017ko urtarrilaren 3an egingo baitu zordunketa.

Helbideratu gabeko ordainketetarako, zergadunei udalaren bulegoetan entregatuko zaie ordainagiria (astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara), dirua Okondoko Kutxabanken sar dezaten.

Okondo, 2016ko azaroaren 17a

*Alkatea*

**SERGOTATO EGUREN**